

**HEZKUNTZA SAILA**

Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
*Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Universidades
e Investigación
*Dirección de Política y Coordinación
Universitaria*

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariaren 2022ko urriaren 17ko **EBAZPENA**, 2022-2023 ikasturterako Ikasiker lankidetza–beketan zuzendu beharreko eskaerak zerrendatzen dituena.

GERTAKARIAK

Lehena.- Hezkuntza sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko AGINDUAREN bidez Ikasiker lankidetza–beketarako deialdia egin zen, 2022-2023 ikasturterako (2022ko uztailaren 11ko EHAA, 133. zk.).

Bigarrena.- Aginduak 9. artikuluan xedatutakoa jarraituta, eskaerak aurkezteko epea 2022ko irailaren 7an bukatu zen.

Hirugarrena.- Aginduak 10.4 artikuluan xedatzen duenez, eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio zuzenketak egin ditzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraituta.

Ondorioz,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- I. eranskinean aipatzen diren zuzendu beharreko eskaeren zerrenda argitara ematea.

Bigarrena.- Hamar eguneko zuzentze-epea ezartzea. Zuzentze-epea 2022ko urriaren 18tik 31ra arte izango da, biak barne.

Hirugarrena.- Jakinaraztea, epe hori igaro eta gero, interesdunak ez baditu agiriak aurkezten, eskaerari uko egiten diola ulertuko dela.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 17a.

Miren Artaraz Miñón
UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KORDINAZIOKO ZUZENDARIA